

## Liburu bat, ez Kuba defendatzeko, gu gezurretik babesteko baizik

Pascual Serrano

Elkartasunaren eta lankidetzaren helburua herrien baldintzak hobetzen laguntzea izan da urte askotan. Edota euren matxinadei geure sostengua azaltzea. Horrela izan zen 1980. eta 1990. hamarkadetan brigadekin, bai Nikaraguan, bai El Salvador-en, eta baita Kuban ere. Latinoamerikari dagokionez, egoera aldatu egin da azken urteotan. Egun, laguntza ekonomikoari dagokion edota eskulanaren indarra dagokion elkartasuna ez da garrantzitsuena, euren baliabide naturalak errekuperatzeko bertako Gobernuek hartutako erabakien ondorioz. Bestalde, mundua txiki bihurtu da komunikazioen garapenarekin. Modu horretan, nazioarteko iritzi publikoa munduko botere garrantzitsuenetakoa bihurtu da.

Legezko gobernu bat kentzeko sortutako edozein operazio edo esku-sartzek, nazioarteko komunitatearen gutxieneko onarpena izan behar du egun. Hori lortzea ez da oso zaila informazioaren gaineko kontrol eta botere sistemekin. Ezta, garunak menderatzeko darabiltzaten metodo garatuekin eta sakonekin. Eta hori da kezagarria.

Aipatu bi baldintza horiek (gobernu subiranoak Latinoamerikan eta nazioarteko iritzi publikoaren boterea) probokatu dute beharrezko elkartasuna beste bat izatea: iritzi publiko horretan eragitea izan behar da elkartasunaren helburu garrantzitsuenetako bat. Eragitea, gezur operazioei aurre egiteko; baita munduko *establishment*aren kontra egiten duten gobernuak eta mugimenduak jasaten dituzten desitxurazteei aurre egiteko.

Gauza horiek guztiak kolektibo askok ulertu dituzte. Euskadi-Cuba elkarkasun taldeetatik sortutako Cubainformacion proiektuak bezalakoak jaiotzea ulergarrai da horregatik. Cubainformacion-en helburua, herritarrei Kubako errealitatea gerturatzea da. Baita hedabide handietan Kubaren kontra duten konjuraziori aurre egitea ere. Horregatik liburu hau eta bere izenburua: *Conjura contra Kuba (Kubaren kontrako konjurazioa)*. Kubako erreboluzioaren inguruan sortu diren gezur guztiak desmuntatzeko. Kubaren kontrako konjurazio horren berezitasunak asko dira. Horietako batzuk aipatuko ditut, orokorrean, kuriosoak suertatzen zaizkidanak:

1. Begira: kapitalismoan zerbaitek funtzionatzen ez badu, diru gehiago inbertitu behar dela esaten da, edo presidente hori edo ministro hori aldatu behar dela. Baina inoiz ez da esaten kapitalismoak ez duela funtzionatzen. Bestalde, Kuban zerbait ondo ez doanean, sistemak ez du funtzionatzen, bere osotasunean. Kalifornian itzalaldiak egon zirenean, edo New Orleansen milaka pertsona hil zirenean Katrina hurakanagatik (ez zioten aurrea hartu eta erreskate sistema kaosa izan zen), inork ez zuen kapitalismoa birplanteatu behar zenik esan. Kapitalismoan, 766 milioi pertsona daude osasun zerbitzurik gabe, 120 edateko urik gabe, 842 milioi pertsona heldu analfabeto (horietako 21 milioi AEB Ameriketako Estatu Batuetan), 158 milioi haurrek desnutrizioa pairatzen dute eta 110 ez dira eskolara joaten. Datu horiek izan arren, ez zaie okurrizten pentsatzea kapitalismoak ez duela funtzionatzen. Finantza sistema erori arren, kapitalismoa erreformatzeaz mintzo dira. Bakarrik erreformatzeaz. Kuban, udaratan itzalaldiak badaude, edo nekazari-produkzioan krisia badago, ez digute esaten argindar sistema edo nekazaritza hobetu behar denik. Sozialismoa utzi behar dela esaten digute.

2. Beste eredu bat: Kuban trantsizio baten zain dauden irudia mantetzen da beti. Pasa den martxoan, CNN Plus telebista kateko tertulia batean aldaketa prozesuen ingurukoa zen eztabaida; nahiz eta Kubarekin kritikoa zen hizlari bat egon eta bestea Kubako erreboluzioaren babeslea izan. Nik ez dut inoiz topatzen Hondurasko, Haitiko edo Kolonbiako trantsizioei buruzko eztabaidarik. Eta ondo etorriko litzaieke beste egoera batera aldatzea.
3. Sozialismoa eta Kubako erreboluzioa defendatzen dugunoi, beti ematen digute erantzun bera eztabaida bukatzeko: “Ba joan Kubara, zer ari zara bertara bizitzera joan gabe?”. Kurioso da. Izan ere, Suediako osasun sistemak hobeto funtzionatzen duela esaten duenari ez dio inork esaten bertara bizitzera joateko. Ingalaterran Espainian baino puntualagoak direla esaten duenari ere ez dio inork esaten Londresera bizitzera joateko. AEBetako ikerketa Espainiako baino hobea dela esaten didanari, ez diot esaten bertara joateko. Dioena dudan jartzen dut edo Espainiakoa hobetzeko proposatzen diot. Bi neurri ezberdin horiek ere erabiltzen dituzte Kubako hauteskunderi buruz hitz egiterakoan, hauteskunderak ez daudela esaten dutenean eta hori ez da egia-. Hugo Chavez diktadoretzat jotzen duten berberak dira, nahiz eta Venezuela den hauteskunde gehien konbokatu diren herrialdea.
4. Europako gobernu bateko kide batek edozein tokitara bidaiatzen duenean, ez da eztabaida politikoa sortzen: ea oposizioko kideekin bildu den edota herrialde horretako gobernuarekin giza eskubideei buruz hitz egin duen. Kuban, ordea, horixe da eztabaida gidatzen duen ardatza.
5. Kubako sistema diktatorialaren adibide bat, horrela diote, otarrainak hazten dituen langileak ezin dituela jan da. Edota hotel bateko atezainak bertan ezin duela lo egin (hori dagoeneko ez da horrela). Nik zera galdetu nahi dut: Madrilgo edota Pariseko itsaskitegi batean lana egiten duen zein langilek irabazten du bertan familiarekin afaltzeko adina diru? Edo zein igeltsorok eros dezake Europako herrialdeetan hondartza ondoan edo bizitegi-auzoetan eraikitzen dituen txaletik? Honakoa azaldu behar da: kubatar batek ezin du otarrain bat jan, turistak beragatik ordaintzen duen diruarekin zazpi urtetik beherako haur guztiek esnea izatea bermatzen delako. Orain, pentsa dezagun zergatik ezin duen jan Europako zerbitzariak: bere soldata miserablea delako, jatetxearen jabeak auto eta etxe handi bana izan dezan.

Liburu honetan, Kubaren kontra erabiltzen diren gezurrak desmuntatzea da helburua. AEB kubatarrez beteta dagoela ere esaten dute, eta, gero, horiek, udan Kubara joaten direla oporrak pasatzera. Atzetik daukaten herrialdera itzultzen diren erbesteratuen kasu hau bakarra da munduan. Homosexualak jazartzen direla ere zabalduta dago, baina, era berean, sexu aldaketa doakoa izatea bermatzen duen legea onartu dute. Homosexualen ezkontzak baimenduta daude eta telebista publikoan arrakasta handia dute gai horri buruzko telesailek.

Edota Fidel Castro aberatsa dela, bere ondasunen artean, kongresuak egiteko Konbentzio Jauregia duelako. Aberats lelo samarra izan behar da, kongresu jauregia erosteko, yate bat erosi beharrean.

Kuba da munduko herrialde bakarra, non gobernuaren kontrako hogeit hamar pertsonako manifestazio bat nazioarteko hedabide guztiek lantzen duten. Gobernuaren aldeko milioi eta erdi pertsona manifestazioa, aldiz, isilarazi egiten dute.

Liburu honetan, hasieratik argi uzten da helburua ez dela Kuba paraisoa dela sinistaraztea, ezta sistema horretan ez dagoela akatsik, hutsunerik edo arazorik. Bilatzen duguna zera da, erakustea, gainontzeko herrialdekin alderatuz, bi neurri ezberdin erabiltzen direla Kubari buruz informazioa ematerakoan. Beraien lorpenak isilarazi egiten dituzte, gezurrak asmatzen dituzte euren ospea zapuzteko; eta bere gobernuari itzalaldi informatiboa ezartzen diote, baita elkartasun taldeei, edota erreboluzio horren baloreekin konprometitu diren intelektualei.

Baina, arrazionaltasuna jokoan jarrita, Kubako arazoak konpontzeko errazagoak dira kapitalismokoak baino. Ikus ditzagun. Kuban etxebizitzak falta dira. Kubako gobernuak badaki arazo hori konpontzeko etxebizitzak eraiki behar direla, materialak inportatzeko baliabideak lortzen diren heinean, edota herrialde barruko produkzio ahalmena hobetzen denean. Horretan hasita daude dagoeneko. Espainian, gazteek ez dute etxebizitza baterako dirurik, baina hiru milioi hutsik daude. Gure gobernuak argi du ez direla banatuko, eredu kapitalistaren kontra joango litzateke. Ondorioz, ez dakite arazoa nola konpondu, edo ez du konponbiderik kapitalismoaren baitan.

Kuban, garraio sistema txarra dute. Gobernuak badaki autobusak erostea dela konponbidea, edota herritarrak mugitzeko trenak eraiki behar dituela. Eta horixe egiten ari da, Txinak eta Brasilek lagunduta. Baina Madril, Erroma, Mexiko edo Caracas bezalako hiriak kolapsatuta daude norbanakoen autoekin. Inongo gobernurik ez da ausartzen auto pribatuaren zirkulazioa debekatzeko, trafikoa konpontzeko. Kuban, beharrezko kaloriak bermatzen badira ere, elikagaiak falta dira. Nekazarien eta abeltzainen lana sustatzeko metodoak bilatzea da soluzioa. Europan, esne asko ekoizten duen abeltzainari isuna jartzen diote, eta mahastiak sustraitik ateratzen dituen mahastizainari ordaindu egiten diote. Argi dago non dagoen sen ona eta non ez.

Liburu honetan, Kuba larrutzeko erabiltzen diren gaiak buruzko egia bilatzea ez dugu alde batera utzi: giza eskubideak, oposizioa, emigrazioa, Internet, egoera ekonomikoa, hauteskundeak. Kubatarrak elkarrizketatu ditugu, adituak, eta gai asko gure azalean bizitu ditugu: hauteskundeak nolakoak diren eta agintarien luxurik eza, esaterako.

Baina liburu hau ez dugu idatzi Kuba defendatzeko, gu gezurretik babesteko baizik. Garrantzitsua da jakitea hedabideek noiz proiektatzen duten herrialde bateko egoerari buruzko irudi faltsua. Ez dira herrialde horretako biztanleak engainatzen ari. Gu engainatzen ari dira. Gure burua defendatzen ikasi ezean, gureak egingo du.